




Afasia **hizkuntzaren nahaste** bat da.

Afasiadunek **mintzatzeko, ulertzeko, irakurtzeko, idazteko** edo **kalkulatzeko** arazoak izan ditzakete.

Afasiaren **iturria burmuineko lesio bat** da.

Kasu gehienetan, **apoplexia** bat da, bainan **istripu** batek edo **tumore** batek ere afasia eragin dezake.



Norbaitek apoplexiaz sofritzen du burmuineko **odolaren zirkulazioa** **bapatean** aldatzen denean. Hori bi manieraz gerta daiteke: odol-hobi bat **tapatzen** denean edo **odol-jarioa** gertatzen denean.

Odol-hobiak tapatzen direnean:

Odol-hobiak hertsitzen dira odol-hobi batean gertatzen den koagulazio batengatik odol-meta bat (tronbus) sortzen denean. Orduan “tronbosia” dela diogu. **Tronbus** horrek odol-hobi bat hesten duenean (enbolia) odolaren iharduera geldituz, odolaz elikatuak izan behar ziren ondoko zelulak hiltzen dira. Orduan **burmuineko infartua** edo **izkemia** da.



Odol-jarioa:

Odol-hobiak ahultzen direnean (aneurisma), **odola** atera daiteke eta odol-hobia **hautsi**. Orduan **burmuineko odol-jarioa** gertatzen da.



Medikuek apoplexia **IZB** deitzen dute: **Istripu Zerebro Baskularra**.



Hizkuntzak leku handi bat okupatzen du eguneroko bizian. Besteekin **mintzatzen** gara, egunkaria **irakurtzen** dugu, **lan egiten dugu** eta **ikasten** dugu.

Hizkuntza erabiltzen dugu gure **ideien** adierazteko eta geroari buruzko **proiektuak** egiteko ere bai.

Gauza askok arazoak sortu diezaizkioke afasiadunari, istripua baino lehen oso gauza sinpleak ziruditelarik, hala nola:

- Solastatzea
- Taldean edo inguru zaratatsuan mintzatzea
- Liburu bat, egunkaria, aldizkari bat edo autobideko seinaleetika irakurtzea.
- Txistek kondatzea edo ulertzea
- Telebistako edo irratiko programak segitzea
- Gutun bat idaztea edo inprimaki bat betetzea
- Telefonoz deitzea
- Kalkulatzea, zenbakiak memorizatzea edo dirua erabiltzea
- Bere izena edo senideen izenak erratea



Hala ta guziz ere, nahiz afasiadunek hizkuntzaren arazoak dituzten, ez dira eroak!

Afasiadun gehieneri iduritzen zaie beren bizia **asko aldatu** dela .
Lehen errazak ziren gauzak **zaila eta nekagarriak** dira orain.
Pertsona hauek beraz konfiantza galtzen dute eta etorkizunaz **kezkatzen** dira.
Senideen **laguntza eta sostengua** oso garrantzitsuak dira.
Beste pertsona afasiadunak **ezagutzea** ere bai.
Elkar ulertzen dute hitz egin gabe.

Zer egin dezakezu?


- **Erran jendeari** afasiaduna zarela.
- Zurekin **karta bat** har ezazu afasia zer den esplikatzeko duena.
- Nahi duzuna ezin baduzu adierazi mintzairaren bidez, saia ezazu **keinuak** edo **marrazkiak** eginez, **idatziz** edo **erakutsiz**.
- Senideei edo laguneri **laguntza** eskatu.
- **Aintzinetik pentsatu** edo -ahal baduzu- paper batean idatzi errango duzuna.
- Zure kezkek besteeri aipatu itzazu, ez egon bakarrik.



Keinuak



Marrazkiak



Idatzi



Erakutsi